

Literatura ▸ LIBURUAK

Amesgaiztoko titulua

BIXENTE SERRANO IZKO

Irakurle kritikoaren interesa pizte aldera, erran dezadan, hasteko, niri ez didala erakutsi liburu honek nola egiten duten amets emakumeek, hau da, ez gaudela *Ikas ezazu ordu gutxitan auskalo zer* moduko tituluak dituzten liburu sasi pedagogiko horietako baten aurrean; nahiz eta Kressmann Taylorren ipuin bilduma honi jarritako izenburuak horrelako zerbaite adierazten duen, marketin ikuspegi batek tristeki faltsutu duelarik ipuinen mami sortzailea. Zorionez, emakumeek ez dute bilduma honetan agertzen diren kontuekin bakarrik amets egiten.

Izan ere, borts narrazio labur biltzen du liburuak, baina ez du egileak obra berezi gisa atondu, argitaletxe frantses batek apailatu ditu ipuinak, idazleak proiektaturiko obra biribil bat izanen balitz bezala. Lau ipuinetan emakume bana dugu protagonista, gizon bat bortzgarrean. Argitaratzailea ez da mugatu titulu nagusi desegokia asmatzera, ipuinen jatorrizko izenburuak ere aldatu ditu, pertsona izenak jarri bakoitzaren buruan, protagonistenak, narratzioren funtsari ez, bildumagilearen

marketin asmoei men eginarazi nahian bilduma osoa. AEBkoa da Kressmann Taylor idazlea eta amerikar ingelesez idatzi zituen lan guztiak. Joxan Elosegiren euskarapena, argitalpen frantsesarena da.

Ahazturik zegoen Kressmann Taylor liburu merkatuan, eta, zorrionez, Editions Autrement etxeak berraurkitu zituen haren balioak, duela urte gutxiatik hona Holokaustoari buruzko jakin-mina zabaldu deneko giroan. Izan ere, *Ezezaguna helbide honetan* eleberri laburrak (Ramon Etxezarretari esker irakurgarria euskaraz 2003tik) lagin paregabea, bisturi literario zorrotz eta zehatz batez aukeraturikoa, eskaini zuen Holokaustorekin aurreko alemaniar giroaz eta geroko hondamendi humanoaren (ezen ez humanitariora) iragarri. Harako hartan, 1938an argitaraturik, muturreraino eraman zuen Kressmann Taylorrek narratzailearen desagerpenaren teknika literarioa, gutun sorta bat ordena kronologikoan sailkatuz, artxibozain arretatsu baten betekizunera mugatu sormenezko bere eskusartzea. Emaizta, erabateko mailukada irakurlearengan.

Lehen begiradan, arras bertze-



■ 'Horrela egiten dute emakumeek amets'

Egilea: Kressmann Taylor. **Itzultzailea:** Joxan Elozegi. **Argitaletxe:** Alberdania. **Urtea:** 2007.

lakoak dira ipuin hauek, 1935-1963 artean plazaratuak aldizkari bantatzen. Borts pertsonaiaren gogoe-tan, haien pasioetan, frustrazioetan, desiretan, bizipenetan sartu da: hala nola aurreneko maitasunaren zirraran; maite-harremanen haustura mingarrian; bizi-

proiektuen eta zure jatorrizko bizi-moduko sentimenduen deiadarraren arteko kontraste korapilatsuan; zahartzaroko isolamendutik bertze sasoiko bizipenak berpiztu nahian komunikazioaren bidez; udaberriko odol beroaldi batean, nekazari adindu eta serio batengan pizturik, protagonistak maskulino bakarraren bizitza go-gaikarria alda izan zezakeena baldin eta... Giza naturaren baitan murgildurik, nabarmenagoa da ipuin hauetan narratzailearen presentzia. Baina aipaturiko nobelan bezala, ez dago ezer sobera, ez dago apaindura huts den deusik ere osagai narratiboetan. Giza naturaz doa haren testigantza eta lur naturaz baliatzen da, lorategien, basoen, erreken, txorien, gauen, egunsentien, hodeien, argien, soinu-... aieruez baliatzen da, efikazia miragarri, pertsonaien baitako kezkek eta desioak lehen planoan nabarmentzeko: naturaren deskribapenak bainoago, naturaren aieruak baitira, hain zuzen ere, euskarri deskriptibo horiek guztiak, helburu narratiboaren zerbitzuan zuzen-zuzen jarriak.

Bertze izenburu bat, anitz sinbolikoagoa, mereziko luke bilduma honek, baina ezikusierena eginez gero paraturikoari, literaturaz gozatzeko aukera du irakurle kritikoak.

>> bserrano@berria.info



■ 'Euskara, hermeneutika'

Egilea: Felix Zubiaga. **Argitaratzailea:** Eleiker. **Urtea:** 2007.

«Euskara hitzen jatorria eta, beraz, bere buruaren jatorria bilatzeko ere gai den hizkuntza bakarra da», liburu honen egilearen ustez. «Hartarako ez baitu bere monosilaboen iturburura jo, hizkuntzaren arketipoak direnak idoro eta haien sinboloen ituan analogiaz zerbizatzen jo. Eta bertan du hitzaren sorrera eta bertan hitzaren edukin doia». Antzeko saiakera askoren egilea da Felix Zubiaga.



■ 'Fisika jostagarri'

Egilea: Eduardo de Campos Valadares. **Itzultzailea:** Igor Urresti. **Argitaratzailea:** Elhuyar. **Urtea:** 2007.

Bakarrik nahiz taldean lantzeko esperimentuak jasotzen ditu liburu honek, eta gaztetxoek fisikako gertakariak era dibertigarri batean helaraztea du xede. Esperimentuak oso erraz ulertzeko moduan azaltzen dira, edukien zorroztasuna gutxietsi gabe. Material merketatik abiatuta, fisikaren jakintzan sartzeko aukera ematen du.



■ 'Euskal Herria ardatz'

Egileak: Eugenio Arraiza, Eduardo Apodaka, Joxe Manuel Odriozola. **Koordinatzailea:** Gaizka Aranguren. **Argitaratzailea:** UEU. **Urtea:** 2007.

Kultura, nortasuna, boterea, eza-gutza, sentimendua eta ekimena ditu gai nagusien artean liburu honek. «Eusko kultur gaiak abiapuntutaz hartu ditugu. Inguruak aztertuta, beste nortasunen artean euskal identitatea topatu, eta bertan herri baten zantza nabaritu dugun», diote egileek.

Mundu gabeko gizakiak, gizaki gabeko lurrak

BEÑAT SARASOLA

Erlojuen mekanika poema liburuak irakurtzen hasi aurretik nituen bi aurreirudipen aitortu nahiko nituzke ezer baino lehen. Alde batetik, azala zatar samarra aterazaiela oraingoan Susakoei; bestetik, liburuak nigan sortutako ikusmin handia, gauzak dauden moduan, denbora tarte handia baita hamabi urte literaturan, eta horixe da Jose Luis Otamendik *Lur bat zure minari* gogoangarri hura argitaratu zenetik igarotako denbora tarte.

Izan ere, *Erlojuen mekanika* hau *Lur bat zure minari* harekin erkatzea ekidinezina suertatu zait, besteak beste, nahiko onartuta dagoelako hori izan dela azpeitiarraren orain arteko lanik biribilena, eta marka, beraz, ez zelako aski erraza gainditzeko. Bada, esango nuke, liburu honek zenbait alderditan aurrekoa gainditzea lortzen duela, eta, honenbestez, hamabi urteko tarteak zinez merezi izan duela.

Lur bat zure minari liburuak, labur samarra izanagatik, aparteko intentsitate poetikoa zuen, bazurdi poetak bertso-lerro bakoitzean bizia zuela jokoan. *Erlojuen mekanika*-k, ordea, tonu patxada-



■ 'Erlojuen mekanika'

Egilea: Jose Luis Otamendi. **Argitaletxea:** Susa. **Urtea:** 2007.

tsuagoa du, ez da hain oldarkorra, badauka halako etsipen puntu bat, besteak beste, liburu elementu nagusia ere ezberdina delako: denbora. Denboraren gaineko hausnarketak errepikariak dira liburuaren, titulu bertatik hasita; eta ez

badira denborari buruzkoak, bere anaia edo arreba den espazioari buruzkoak izango dira. Horregatik azalduko dira poemotan, erlojuak, haurtzarora, geroa, ezereza, ezlekuak, eta, azken batean, gai ontologiko behinena, izana eta ez izana. Eta horrela, liburuak ezin izatearen frustrazioa irudikatuko luke neurri batean, denborak sorrarazten duen errealtatearen iheskortasuna eta honen ondoriozko etsipena, nihilismoraino doana ia une batzuetan (*Aritmetika ariketak*). Helduleku gabeko gizakia da hemengo, mundu gabekoa, lur gabekoa, erlojuak txikitzen tematzen dena, aberriaz ahaztu ezin dena. Izan eta ez izanaren arteko joko hori primeran irudikatzen da zenbait baliabide erretorikoetan, zehazki paradoxak («gu mundu gara / baina mundua ez da geurea») eta antitesiak («gu beste batzuk gara») erabiltzen direnean.

Zeren liburu honetako beste ezaugarri garrantzitsua idazleak badabilen hizkuntza poetikoa da eta. *Lur bat zure minari*-n dagoeneko sumatzen zen forma narratiboa gotu du Otamendik *Erlojuen mekanika*-n. Bere ibilbidean kons-

tante den puntuazio zeinuei uko egiten jarraitzen du, baina hizkuntza lau horretara emanik, segida erritmiko bikainak taxutzea lortzen du aldiro-alديو bertso-lerroak elkarren artean gainjarri. Hau da, puntuazio zeinuak ez erabiltzea ez da kasu honetan erakzeriagatik egiten —liburu aniztatan ikusten ahal dugun bezala—, poemaren jarioaren mesedetan baizik, lerroek beraiek erritmoa garraiatzen dutelako euren baitan. Aintzat hartzekoak dira, halaber, ildo honetan, errepikapenak eta paralelismoak. Otamendiren aurreko liburuetan nekez topatzen ahal ziren baliabideok, baina iruditzen zait liburuaren gailurrean aurkitzen diren poemak gisa honetan osatutakoak direla hain justu: *Mundua, Haurtzaro galdua, No man's land, Jendetasuna* (Xabier Aldairi), *Aberriaz zelan ahaztu...* Susmoa dut poema hauek euskal poesiako poema behinenean alboan paratu daitezkeela lasai asko. Badakit ez duela prentsa onik baieztapezen biribilak egiten ibiltzeak, baina uste dut ez naizela handizkatzeko ari *Erlojuen mekanika* azken aldiko poesia libururik onena dela badiot.

>> bsarasola@berria.info